

Klaretarrak

Los misioneros claretianos, oficialmente "Hijos del Inmaculado Corazón de María" (1849), están presentes en el País desde la primera década del siglo pasado. El fundador de la Congregación fue el futuro arzobispo Antoni Maria Claret (1807-1870), confesor de la reina Isabel II. La iniciativa respondió a urgencias restauradoras de la época. Bien establecidos entre nosotros, han dado figuras ilustres, por ejemplo la del cardenal navarro Larraona

"Klaretar" hauek ez dira nahastu behar XIII. mendean sortutako moja klaratarren Ordenarekin. XIX. mendean eraikitako Kongregazioa da erlijioso klaretarrena, eta "Miren Bihotzaren Semeak" bezala ezagutu izan ditugu Euskal Herrian (latinezko laburduraz: CMF). Euskal Herrira etorri eta laster oso bertakotu izan den Kongregazioa da hau.

Katalunian jaioak (1849)

XIX. mendeko Gerra Karlistetan Euskal Herria eta Katalunia izan ziren borroka-eremu bortitzenak, eta biak ere behin eta berriz gerra-eskenatokiak gertatu ziren. Horregatik ere, desamortizazioak eta esklaustrazioak gogorjo zuten eskualde hauetan egitura eliztarra. Eta Estatu-koboterearen interesa arazo politiko ez ezik erlijioso ere gertatu zen, eliz pastoralarekin zerikusi zuzena zuena, adibidez.

Testuinguru horretan begiratu behar da Miren Bihotzaren Semeen sorrerako historia, Antoni Maria Claret eta lagunaren ekimenez jaio zen Kongregazio honena (Vic, 1849). Claret-en biografia gorabehera eta joan-etorri handikoa da; eta bere erroak batez ere Katalunian izan zituen (Bartzelonako Sallent-en jaioa zen Claret). Sermolari preziatua zen, agertzen zen tokietan, eta nonahi zela ere, ahal zuelarik, ez zuen

galduko zeregin horretarako aukerarik (Katalunian beti katalanez jardun zuen). Kanarietan ere bizkorki saiatu zen lanean (1848-1849). Hizlari ona izateaz gain, idazteari ere gogoz ekion zion, fededunentzat hainbat liburu idatziz, katalanez eta gaztelaniaz. Euskarara itzultitako liburu bat badu. Bere Llibreria Religiosa argitaletxearen bidez (1847) milioika liburu saldu-banatu zituen garaiko erlijiotasunari erantzunez.

Erreginak Kubako Santiagoko Artzapezpikutarako hautatu zuenetik, mundu ofizialeko pertsonaia izan eta lrla hartako pastorean eta gatazketan parte hartu behar izan zuen (besteak beste, esklabuen askatasunaren alde agertuz). Han hemen ez zitzaion falta izan etsairik, eta atentatu larri bat ere jasan zuen (Holguín, 1856).

Isabel II.aren aitor-entzulea zenez, Gortean eman zituen azken urte gehienak (1857-1869), garaiko liberal anti-isabeldarren eraso eta interesak inguruan zituela. Iraultza Loriatsua deituaren ondoren (1868) Frantziara erbesteratu behar izan zuen, eta Vatikanoko I. Kontzilioan parte hartzera heldu zen, 1870ean Okzitaniako Fontfredan hil aurretik.

Euskal Herrian (1880...)

Kongregazioaren garapena segurtatu zutenak, fundatzailearen lehen orduko lagunak izan



ziren, harik eta Kongregazioa, hazitxoak, bi Probintzian banatu zen arte (1895: Katalunia eta Gaztela, eta azken honen barruan Euskal Herria): guztira, 1.591 erlijioso ziren une hartan. Hurrengo banaketa "Kantabria" sortzean gertatu zen (1950, 1956), orduan ere Euskal Herria barruti zabalagoan zela.

Azkenik, asko kostata, Euskal Herria Probintzia beragaina bilakatu zen 1968an, Hegoalde osoa barnean zuela eta inguruko lurraldeetatik bereizita. Aldaketa honen albistea, zehar bidez, Madrileren ere iritsi zen, nonbait, eta Oriol Justiziako Ministroa kexu izan zen lurralde-mugaketa berriaz (1970). Hasiera hartan, "Kantabria" izena eman zitzaion, eta ondoren, 1980an, "Euskal Herriko Probintzia".

Probintzia erlijioso honek mota ezberdinetako Etxeak izan ditu, eta batzuetan aldi bereko zeregin bikoitzak edo hirukoitzak dituztenak. Etxe Nagusia Bilbon izanik, beste hainbat herritan bizi izan dira klaretarrak.

Bilbo (1886) eta Donostian (1920. Ikastola) Parrokia bana izan dituzte, kasu honetan Hiriko gazteentzako Ikastetxea ondoan zuela. Balmaseda (1882-1993 Seminarioa), Agurain (1918. Ikastola 1982-1992) eta Beiren (1910-1979) egon dira erlijioso-gaiezako Heziketa Etxeak, eta Tolosa (1914. Orain gutxi itxia) eta Iruñeko Prediku-Etxeak (1880. Aldapa) daude azkenik Probintzia osatzeko. Laborra izan zen Getxo-Areetako lehenengo ikastetxearen historia (1942-1945).

Euskal Probintzia eratzean jada irekita zeudenen ondoan, Probintzia gazteak ondoko beste Etxe hauekin osatu zuen zerrenda hori: hor

daude, beraz, Iruñeko Larraona Unibertsitate-Kolegioa (1970), Gasteizko Nobizio-Etxea (1972), -Leioa-Askartzako Ikastetxe eta Seminario Txikia (1975) eta Getxoko Egoitza (1977-1982). Oro-tara, hamaika Etxe izan dira Probintzia osatu dutenak; sozialki, Larraona eta Askartza dira klaretarren Euskal Herriko obra handiak. Moja klaretarrek ere izan dituzte bi Etxe: Abartzuza (1960-1983) eta Bilbo (1950-1958).

Kongregazio honek, Euskal Herriko Probintzia izan aurretik ere, izen ezagunak eman dizkio euskal kulturari. Gogora bitez gerraurreko Aita Imanol Arriandiaga idazlea (†1947) edo Jose Zabala-Arana gramatikaria (†1936), bion historia A. Villasantek laburtu zigun. Musika-lanetan garrantzizko musikariak eman ditu Kongregazioak, Iruarizaga senideak (6), arratiarrak, eta Eustokio Uriarte durangarra horien artean. Tomas Manzarragak eman zion segida lan horri, Madrilen Musika Sakratuaren Goi-Eskola sortu eta gidatzean (1923, 1952). Oro har, Espainiako Musika Erlijiosoaren gidari izan ziren, beren aldizkari eta guzti.

Kontzilio ondoko euskalgintzan Etxe irekiak eta erlijioso langileak izan dituzte klaretarrek: gogora, adibidez, gure belaunarentzat hain esanguratsua izan den eta Udako Euskal Unibertsitatearen Ikastaroak bildu izan dituen Iruñeko Larraona Kolegioa.

Estatistikek diotenez, 1968an Euskal Herriko Probintzian 135 ziren klaretarrak, eta 2002an 95.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580